URTARRILA
**16**
OSTEGUNA

8.36 SORTU — 18.13 GORDE
*19an ilbete*



# HOROSKOPOA

**ARIES**
martxoak 21 — apirilak 20
Goseak egotean jan behar da bakarrik. Zurea gosea baino, jateko gogoa da.

**TAURUS**
apirilak 21 — maiatzak 20
Mardula benetan aukeratu duzun liburua. Ez duzu hobe izango txikiago bat hartzea?

**GEMINI**
maiatzak 21 — ekainak 20
Errekuperazioetan gehiago saiatu behar zenuela agindu bai, baina zer egin duzu?

**CANCER**
ekainak 21 — uztailak 21
Haizea bezala, inguru guztia astintzen ibiliko zara egun osoan.

**LEO**
uztailak 21 — abuztuak 23
Kanpokoekin bai zintzoa eta goxoa. Noiz izango zara etxean horrelakoa?

**VIRGO**
abuztuak 24 — irailak 23
Marrazki handi hori zure aurrean jarri duzunetik, ez duzu ezertarako burua makurtzen.

**LIBRA**
irailak 24 — urriak 23
Dena desberdin ikusiko duzu. Zergatik ote da? Lehen bi begi, orain berriz lau.

**SCORPIUS**
urriak 24 — azaroak 23
Ez duzu ba hotza izango! Nori bururatzen zaio urtaro honetan tiradun nikia jartzea?

**SAGGITARIUS**
azaroak 23 — abenduak 23
Berandu izan aurretik, astebukaerako plana egiten hastea gomendatuko nizuke.

**CAPRICORNIUS**
abenduak 22 — urtarrilak 20
'Zorionak zure urtebetetzean, zorionak ta urte askotarako...'. Zenbat? Horrenbeste?

**AQUARIUS**
urtarrilak 21 — otsailak 18
Bi aste barru egun handi bat izango da. Zergatik? Zer dela eta? Bi aste barru ikusi behar.

**PISCIS**
otsailak 19 — martxoak 20
Non utzi duzu liburu 'potolo' hori? Ez zenuen ba hirugarren aldiz galduko?

# EFEMERIDEAK

## Felipe Arreseren heriotza

**1906.** urteko urtarrilaren 16an hil zen Felipe Arrese Beitia euskal idazlea. Otxandiar honek 31 urte zituen bere olerkiak lehen aldiz agertu zirenean. 'Euskal Erria' eta 'Euskaltzale' aldizkarietan argitaratutako olerkiz liburu bat osatu zuen 1900. urtean. Arturo Kanpionek liburu horren hitzaurrean zera zioen: '... Aberri maitasunez sututako olerkiaren bihotz taupadak dira olerki hauek'. Geroztik 1902an 'Astiorduetako bertsozko lanak' eta 1956an 'Olerkiak' argitaratu ziren.

**1332.** Donostiako hesi inguruan haize-errotak ipintzeko eskubidea eman zuen Alfontso XIak.
**1877.** Etxarri Aranatzen euskal udalen batzarra izan zen.
**1920.** Estatu Batuetan 'Lege lehorra' delakoa indarrean jarri zen. Haren arabera debekatuta zegoen edari alkoholdunak saldu eta edatea.
**1956.** Islama Egiptoko erlijioa bihurtu zen Konstituzioaren aginduz.
**SANTORALA.** Berardo, Honorato,

# TELEFONOAK

**Hegoaldetik Iparraldera** hots egiteko: 07-33- aurrezenbakia.

**Iparraldetik Hegoaldera:** 19-34- (eta 45, 4, 43 edota 48, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa edo Nafarroara deituz gero).

**Hegoaldeko herrialdeen artean:**
Araba: 945-
Bizkaia: 94-
Gipuzkoa: 943-
Nafarroa: 948-

| IPARRALDEA | |
|---|---|
| Kostaldeko ospitalea | 59 44 35 35 |
| SAMU | 15 / 59 63 33 33 |
| Pozoindatze kasuetan | 56 96 40 80 |
| Suhiltzaileak | 18 |
| Suhiltzaileak BAMen | 59 63 55 55 |
| Polizia | 17 |
| Baionako Suprefetura | 59 59 09 19 |
| Elektrika-gas arazoak | 14 / 59 52 10 18 |
| Errepideetako berri | 56 96 33 33 |
| Kontseilu Orokorra | 59 25 78 40 |
| Miarritzeko aireportua | 59 23 90 66 |
| SNCFko trenbideak | 59 55 50 50 |
| Laborantza Ganbara | 59 29 50 43 |
| Ordua telefonoz | 36 99 |
| Meteo agiria (grabatua) | 59 22 03 30 |
| Meteo zerbitzuak | 59 23 84 15 |

| HEGOALDEA | |
|---|---|
| SOS Deiak | 088 |
| Udaltzaingoa | 092 |
| Polizia Nazionala | 091 |
| Ordua telefonoz | 093 |
| Telefono argibideak | 003 |

| ARABA | |
|---|---|
| Suhiltzaileak | 28 25 25 |
| Gurutze Gorria | 13 47 47 |
| DYA | 28 10 20 |
| Errepidetako informazioa | 25 42 00 |
| Ertzaintza-Arkaute | 28 20 00 |
| Miñoiak | 13 55 00 |
| Goardia Zibila | 25 61 00 |
| Txagorritxuko Ospitalea | 24 26 00 |
| Santiagoko O. Orokorra | 25 36 00 |
| Ospitale Militarra | 13 65 77 |
| Poliklinikoa | 22 33 00 |
| Arana Eritetxea | 28 28 00 |
| 'Nª Sª Esperanza' klinika | 25 25 00 |
| Asepeyo klinika | 27 46 55 |
| Araba klinika | 14 21 00 |
| Forondako Aireportua | 27 33 00 |
| Gasteizko RENFE geltokia | 23 20 30 |
| Autobus geltokia | 25 84 00 |
| 'Radio Taxi' | 13 60 60 |

| BIZKAIA | |
|---|---|
| Diputazioko suhiltzaileak | 492 28 00 |
| Bilboko suhiltzaileak | 423 30 00 |
| Gurutze Gorria | 422 22 22 |
| DYA | 431 92 00 |
| Ertzantza | 444 14 44 |
| Larrialdiak (Osakidetza) | 475 75 00 |
| Basurtoko ospitalea | 441 88 00 |
| Galdakaoko eritetxea | 456 88 16 |
| Santa Marina | 446 20 66 |
| Gurutzetako ospitalea | 490 31 00 |
| Sondikako aireportua | 453 13 50 |
| RENFE | 423 86 33 |
| ET/FV Atxuri | 433 95 00 |
| ET/FV San Nikolas | 416 13 12 |
| ET/FV Unamuno plaza | 415 50 26 |
| Bizkaia irrati taxiak | 416 22 22 |
| 'Radio Taxi' | 444 88 88 |
| 'Tele Taxi' | 444 23 33 |

| GIPUZKOA | |
|---|---|
| Donostiako suhiltzaileak | 080 |
| DYA | 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 22 22 22 |
| Itsasoko Gurutze Gorria | 27 22 22 |
| Ospitale Probintziala | 45 40 00 |
| Erresidentzia | 45 38 00 |
| Gurutze Gorria (Donostia) | 21 46 00 |
| Gurutze Gorria (Irun) | 61 12 03 |
| Poliklinikoa | 46 22 00 |
| Deba Garaiko eritetxea | 79 53 00 |
| Zumarragako ospitalea | 72 39 01 |
| Ertzaintza | 28 88 88 |
| Goardia Zibila | 21 11 00 |
| Hondarribiko aireportua | 64 22 40 |
| RENFEko geltokia | 28 35 99 |
| ET/FVko geltokia | 45 01 31 |
| Easo Taxiak | 46 76 66 |
| Santa Clara Taxiak | 46 64 55 |
| Radio Telefonoa | 42 66 42 |
| Suital Taxiak | 39 80 18 |

| NAFARROA | |
|---|---|
| SOS Deiak/Foruzaingoa | 088 |
| Iruñeko suhiltzaileak | 22 22 22 |
| DYA | 17 17 17 |
| Gurutze Gorria | 088 |
| Errepidetako informazioa | 22 91 17 |
| Goardia Zibila | 22 11 00 |
| Eguneko Psikiatri O. | 27 38 12 / 61 |
| Nafarroako Ospitalea | 10 21 00 |
| Bideko Ama Birjina O. | 10 94 00 |
| Noaingo aireportua | 31 75 12 / 51 |
| Iruñeko Autobus geltokia | 22 38 54 |
| RENFEko geltokia | 12 69 81 |
| Radio Taxi | 21 00 00 |
| Teletaxi | 23 23 00 |
| Goardiako Farmaziak | 22 21 11 |

# EGURALDIA




EGUZKIA
LAINOTUA
ESTALIA
EURI ZAPARRADA
EURIA
EKAITZA
KAZKABARRA
ELURRA
ITSAS BAREA
ITSAS KIRRIA
ITSASKIA
ITSAS HANDIA
DENBORALEA
HAIZE LEUNA
HAIZE GOGORRA
EKAITZ HAIZEA

### Berdin

Azken egunetako eguraldia izango dugu gaur ere. Zeruan laino gutxi izango ditugun arren, goizeko behelainoari asko kostatuko zaio desagertzea. Haizeari dagokionez, ekialdetik joko du eta ahula izango da. Nafarroan aldiz norabide desberdinetatik joko du. Tenperaturek ez dute aldaketa nabarmenik izango; freskoak izaten segiko dute.

### Itsasoa

Hegoaldeko haizea 2-3ko indarrarekin, arratsaldean tarteka ekialdekoa.
Bisibilitatea: Nahiko ona.
Hondoko itsasoa: Ez da ia izango.
Itsas-haizeari dagokionean: Itsaskirritik kizkurrera.

**Atzoko minimoak aireportuetan**

| | |
|---|---|
| Miarritze | 3 |
| Iruñea | -2 |
| Donostia | 5 |
| Gasteiz | -2 |
| Bilbo | -1 |

# DENBORAPASA

## HITZ GEZIDUNAK




**AURREKOAREN SOLUZIOA**
GASTEIZ

E-342